


EMEKI

martxoak
emakumeen
nazioarteko eguna

marzo
día internacional de
las mujeres



berdintasuna
ikasi eta irakatsi
egiten da



la igualdad se aprende
y se enseña

Eusko Jaurlaritzak berdindu egingo ditu bere funtzionarioen gurasotasun-baimenak

Eusko Jaurlaritzak legez berdindu nahi dizkie semea edo alaba jaiotzeagatik hartutako baimenak bikoteko bi pertsoneri. Baimen horiek berdinduko dituen lehen autonomia-erkidegoa litzateke geurea. Neurri horrek funtzionarioei eragiten die soilik, eta Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektuaren zirriborroan jaso da, datozen hilabeteetan

onartuko dena. Prentsa-ohar batean azaldu dutenez, neurri horren bidez, "Eusko Jaurlaritzak Euskal Administrazio Publikoko langileek lana eta familia uztartzeko aukera bultzatu nahi du eta, emakumeen eta gizonen erabateko berdintasunaren alorrean, jauzi kualitatibo bat eman. Gizonen eta emakumeen artean, seme-alabak zaintzeko zereginak desberdin banatzeak

dakarren desoreka zuzentzen laguntzea, alegia". Egun, baimenak 18 astekoak dira erditzetik, adopzioetik, harreratik edo subrogazioetik, etenik gabekoak, eta 4 astekoak "aitatasunagatik", bikoteko beste kideari eman dakizkiokeenak. Neurri berri horrekin baimenak bi kideentzat izango lirateke, % 100 ordainduak eta besterenezinak.

Martxoaren 8a. Emakumeen nazioarteko greba. #Emakumeokplanto



Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, lehen aldiz antolatu da mundu mailako greba bat, aukera berdintasun erreala eta emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna aldarrikatzeko. Deialdi ofiziala Mugimendu Feminista osatzen duten milaka emakume-elkartetatik dator –emakume hitzak duen zentzu zabalenean eta duen aniztasun guztiarekin erabilia-. Gonbita pertsona guztiei egin zaie, eta emakumeei bereziki, erakusteko "emakumeok planto eginez gero, mundua geratuko dela".

Deialdia 2017eko udaberriari hasi zen lantzen, Argentinako "Vivas nos queremos contra la violencia machista" mugimenduak egindako lanuzteen deialdiak 70 herrialdetan baino gehiagotan izandako arrakastaren ondoren. Deialdiarekin bat egin dute hainbat sindikatu, erakunde sozial eta alderdi politikok.

Dimentsio anitzeko eguna planteatu da. Deialdiak egin dira greban edo lanuzte partzialetan parte-hartzeko, lan-esparruan eta ikasle-esparruan, baina beste esparru batzuetan ere egin dira. Etxeko esparruan, helburua da gizonen egitea emakumeek egingo ez dituzten etxeko lanak eta zaintza-lanak, ikusarazteko

zein punturaino den etxea mantentzea ezinbesteko lana. Kontsumoaren munduari dagokionez, deialdia egin da horniketetan, ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastua ahal beste murrizteko. Horrela, gogoeta bat piztu nahi da kontsumitzen dugun moduan emakumeok dugun eraginari buruz eta eredu jasangarriagoak ezartzeko dugun indarraren inguruan. Aldi berean, boikota eskatu da produktuak saltzeko asmoz emakumeen irudia esplotatzen duten enpresen aurka, tasa arrosa esaten zaion hortaz baliatzen diren eta batik bat emakumeentzat eskaintzen diren enpresen aurka.

Greba Euskal Herrian

Euskal Herriko mugimendu feministak bat egingo du deialdiarekin, "Emakumeok planto" aldarriaren bidez. Emakumeok* Planto plataformak zabaldu duen komunikatu baten bitartez salatu dutenez, "menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen. Egun hau bide luze baten abiapuntua izango da. Bide horretan, aliantza berriak ehunduko ditugu, bateratuz eta elkar ezagutuz, gure bo-

rrokak berriz pentsatuz, erresistentzia berriak eraikiz, eta baztertzen gaituen mundutik askatuz, betiere alternatiba feminista bat sortzeko helburuarekin".

Julia Martí plataforma horretako kidearentzat, martxoaren 8 hau ezberdina izango da. "Diskurtso feminista jendarrean sartzen ari den arren, ikusten dugu oraindik ere hil egiten gaituztela, eta prekaritatea eta berdintasun eza jasaten jarraitzen dugula. Urrats bat gehiago egin behar dugu, eta benetan erakutsi behar dugu gure lanak zein balio duen".

Horretarako bi lanuztetarako deialdi egin dituzte. Lehena 11:00etatik 15:00etara eta bigarrena 16:00etatik 22:00etara. Bi momentu garrantzitsu egingo dira Euskal Herriko hiriburuetan, 12:00etan eta 20:00etan. Lanuzteak egingo ez dituzten emakumeei eskatu diete beren burua ikusgarri egiteko beste era batzuetan, adibidez "beren aldarrikapenak zintzilikatuz beren lantokietako balkoietan, besoko more bat jantziz, eta abar. Emakume guztiak sentitzea haiei ere dei egin zaiela, eta nola edo hala presente egotea mobilizazioz betetako egun horretan", amaitu du Itziar Gandarias plataformako kideak.

Staff
EMEKI

Argitaratzen du: Getxoko Udalaren Berdintasun Zerbitzua. Urgull z/g 48991 Getxo.

Tel.: 94 466 01 36.

e.posta: berdintasuna@getxo.eus.

Erredakzioa: Kahlomedia S. Coop

Diseinua eta maketazioa: Flash Composition S.L.

Gomendioak



TELEBISTA SAIOA


“The Handmaid’s Tale” telesailaren bigarren denboraldia

The Handmaid's Tale Margaret Atwooden lan garrantzitsuenetako batean oinarritutako telesaila da. 1985ean idatzitako narrazio bat da, zientzia fikziozkoa, distopikoa eta feminista. Nobelaren moldaketak ikuslea etorkizunera eramango du; bertan, AEBko presidentea hil ondoren, erregimen fundamentalista bat ezarri dute, balio puritanoetan oinarritutakoa. Gileadeko Errepublika izena jaso duen jendarte berri horretan erregimenak zurrunki kontrolatzen du emakumeen bizitza: legez debekatu zaizkie lan egiteko, irakurtzeko eta dirua eta jabetzak kudeatzeko eskubideak. Munduko antzutasunaren ondorioz, Gileaden geratzen diren emakume emankor urriak bildu dituzte. *Handmaid* esaten diete (neskame), Bibliako txatal baten interpretazio estremista baten ondorioz. Lehen denboraldia 2017ko apirilean estreinatu zen, eta ordutik sari eta aipamen ugari jaso ditu; horien artean nabarmendu behar dira bi Urrezko Globo: bata, Elisabeth Mossentzat, aktore onenarena; bestea, drama serie onenarena. Zortzi Emmy sari ere lortu ditu. Bigarren denboraldia aurtengo apirilean estreinatuko da.

LIBURUA

“10 ingobernables. Historias de transgresión y rebeldía”, June Fernández kazetariaren lehen liburua

“Ni naiz ez pentsatzeko, ez esateko, ez amesteko, ez ausartzeko esan zidaten hori. Ni naiz ez izateko esan zidaten hori”. Joumana Haddaden aipu horrekin hasten da *10 ingobernables. Historias de transgresión y rebeldía*, June Fernández Pikara Magazine aldizkariko kazetari eta zuzendariaren lehen liburua. Bertan hamar pertsonaren bizitzak kontatzen ditu. Hamar pertsona horiek liluratu egin dute Fernández, bizitza erosotik ihes egin dutelako, bizitza zailtzeko borondatea izan dutelako. Pertsona horiek munduan utzi duten arrastoa aprobetxatuz, hainbat gai jorratzen ditu: aniztasuna; arau sozialak, estetikoak eta sexualak; norberak nahi duen bezala bizitzeko eskubidea, eta abar. Feminismoa beste emakume batzuk emantzipatzeko abangoardia dela sentitu beharrean, aurkakoa egin nahi dut: ahizpatasunaz eta ahalduz aritu beharrean egunero praktikan jartzen dituzten emakumeen eguneroko errealitateekin geure burua elikatu, feminista garen aldetik, azaldu du Fernándezek, Belén Remachak *Eldiario.es* webgunearentzat idatzitako elkarrizketa batean. Susanna Martínenak dira Libros del K.O. argitaletxeak editatutako liburu honetako ilustrazioak.



MUSIKA

Pauline & Juliettek beren lehen folk akustikoko diskoa aurkeztu dute: “Hegalkada”

Urteko aurkikuntza da bikote berri hau. Pauline & Juliettek, beren lehen diskoa kaleratu dute: *Hegalkada*. Kultura- eta kolore-nahasketa bat da, bidaiatzeko eta esploratzeko gonbidapena; hamaika konposizio simple, natural eta autentiko, edonori oilo-ipurdia eragingo diotenak. Biral bihurtzen dira Kanboko eta Itsasuko (Lapurdi) bi emakume gazte horiek Facebookera igotzen dituzten bideo guztiak. 2014an ezagutu zuten elkar, eta laster hasi ziren folk influentzia duen musika sortzen. Ordutik, beren ahotsez eta gitarraren laguntzaz zenbait hizkuntzatan kantatu izan dute (euskaraz, ingelesez eta frantsesez), Euskal Herriko hainbat lekutan. 70eko hamarkadako konpositoreek inspiratuta lortu dute euskal kultura herrikoari beste bultzada bat ematea.

Berdintasuna ikasi eta irakatsi egiten da

Berdintasuna balio moduan barneratuta dugula jaiotzen gara eta pentsatzea da, esate baterako, legeak osasuna edo adierazpen-askatasuna eskubide moduan jasotzen dituelako bermatuta ditugula pentsatzea bezala. Gizonen eta emakumeen

arteko berdintasuna, pertsona guztienganako errespetua eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea etengabeko borroka dira, jendar-tean balioak aldatzeko eskatzen dutenak

Getxoko Udalak berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpaina bat abian jarri du. Martxoaren 8aren inguruan hasiko da, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, alegia, eta haren leloa izango da *Berdintasuna ikasi eta irakatsi egiten da*. Lan konplexua da, pertsona bakoitzaren mentalitatean ordena sinbolikoan eragitea eskatzen duena. Baina, zaila izan arren, nahitaezko lana da, jendar-tea aldatuko badugu. *“Batetik, berdinak gara eta dioen jendarte batean bizi gara; baina, bestetik, eguneroko bizitzan nabari dugu ez dela egia. Hezkuntza funtsezko tresnetako bat da errealitatea aztertze eta neurriak hartze, berdintasuna ikasi egiten delako, baina ezberdintasuna ere bai, eta ez da batere modu kontzientean ikasten”,* ohartarazi du Amelia Barquín Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak.

“Berdintasun falta hain sakona duen jendarte batean, laborategiko baldintzak beharko bailirateke berdintasunean hezteko”

2018ko sentsibilizazio kanpainaren helburua da erakustea berdintasunean oinarritutako balioak ez direla berez jaiotzen, baizik eta ikaskuntzaren produktu direla, berdintasuna ikasi egiten dela, beste balioak, jarrerak eta jendar-tean jokatzeko moduak ikasten diren bezala; horrez gain, erakutsi nahi du horren guztiaren ondorioz sozializazioarekin zerikusia duten eragile guztiek erantzukizun handia dutela eredu berdinzaleak irakasten eta erakusten, batez ere belaunaldi gazteei dagokienez.

Kontzientzia eza

Ezinezkoa da jendarte berdinzale bat eraikitzea eskolak, gurasoek, hedabideek, enpresek eta, azken finean, jendarte osatzen duen orok ez badituzte bere mezuen eta, batez ere, bere ekitzen bitartez irakasten errespetuan, pertsonen eskubideetan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako balioak. *“Familiaz eta eskolaz ari garenean, gauza asko oso modu inkontzientean gertatzen dira. Esaterako, ziur noiz edo noiz entzun dugula gurasoren bat honako hau esaten: ‘berdin hezi ditut, baina zein ezberdinak diren’. Esaldiak berak ulertarazten du kontzientzia eza dagoela; berdintasun falta hain sakona duen jendarte batean laborategiko baldintzak beharko bailirateke berdintasunean hezteko. Ahalegina egin behar dugu, eta horren abiapuntua da gogoan izatea ezberdintasuna presente dagoela gure eguneroko bizitzan”,* zehaztu du Barquínek.



Ezinbestekoa da berdintasunean irakastea etengabe, belaunaldi berriek mezu horiek jasotzeko. Kanpainak, beraz, ideia bat azpimarratu nahi du: berdintasuna ikasi egiten dela eta berdintasunean irakasten ez bada, berdintasun eza ikasten dela. Ez da kasualitatea emakume gehiago egotea pobrezian, analfabetismoan, langabezian, soldata baxuenean, eta abarretan. Ez da kasualitatea ere haiek gizonen aldean denbora bikoitza ematea etxeko lanei eta zaintza-lanei, etxetik kanpoko lan-baldintza berak izanda, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) lanaren erabilerari buruz egindako inkestaren arabera. Ez da ausazkoa emakumeek indarkeria matxista jasatea bikote-harremanen barrenean

eta kanpoan, normaltasunaren argudiopean.

Generoari buruzko alfabetatzea

Eskola eta familia dira haurtzaroko lehen bi sozializazio-espazioak. Horregatik, zeregin oso garrantzitsua du irakaskuntza-lanean ari direnak edo arituko direnak generoari buruz alfabetatzea. *“Nire kezketako bat irakasleek femineari buruz ikastea da. Jakin behar dute zer den patriarkatua, nola funtzionatzen duen sexu-genero sistemak, nola gertatzen den bazterkeria, zer diren pribilegioak, zer transbertsalitatea, eta abar. Tresna kontzeptualak behar dituzte, aztertu eta erabakiak hartu ahal izateko”,* nabarmendu du Barquínek.

Batzuetan, irakasleek ez dute sumatzen zenbateraino den beharrezkoa errealitatea egunerokotasunean aztertzea. Gerta daiteke ikastetxe batek esatea *“berdintasunaren alde dagoela”,* baina ez iruditzea beharrezkoa denik eguneroko hezkuntza-bizitza aztertze eta birdiseinatzeko tresnak lortzea. Adibide klasikoena da eskoletako jolastokiena. *“40 urte daramatzagu eskola mistoekin, eta oraindik ere jolastoki asko eta asko futbol zelaiak dira. Ikastetxeak esan arren “berdintasunaren alde daudela”, ikasleek ordu erdiz bizi dute berdintasunaren diskurtsoa behera datorrela. Zerk balio du gehiago? Hitzek ala egunero bizi duzunak?”,* galdetu du Barquínek.

Telebista da hirugarren sozializazio-eragile nagusia. Adingabeen erdiek bi ordu pasatzen dituzte egunean haien aurrean, ohitura sedentarioen inguruko ikerketen arabera. "Askotan kontua ez da telebista

"Berdintasuna ikasi egiten delako, baina ezberdintasuna ere bai, eta ez da batere modu kontzientean ikasten"

ikusten uztea bera, baizik eta haurra pantaila aurrean egotea, kontrolik gabe eta bere burua defendatzeko tresnarik gabe. Adibidez, *La que se avecina* bezalako programak ikusten uzten diegu umorezko programa bat delako, nahiz eta elkarrizketa ironikoak kontrolatzeko gai ez diren eta mezuak hitzez hitz interpretatzen dituzten. Marrazki bizidunekin berdintasun eza ikasten dute egunero, modu oso inkontzientean. PAW Patrol (gaztelaniaz *La patrulla canina*) marrazki bizidunetan bost txakur dira, eta txakurtxo eme bakarra dago, arrosaz jantzita goitik behe-ra. Inork ez die zuzenean esaten "emakumea zara eta gu-

txiago balio duzu", baina produktu zinez interesgarri eta erakargarrietan ikusten ari dira hori. Doraemon marrazki bizidunek diskurtso homofoboa dute, esaterako. Uste dugu berdintasunean hezten ari garela, baina etxean bertan iritsarazten dizkiegu kontrako zentzua duten mezu ugari", ohartarazi du Barquínek.

Eredua emateko neurri politikoak

Hala ere, berdintasuna irakastea ez da hezkuntza kontua soilik; neurri politikoak falta dira esparru guztietan: gehiago inbertitzen denean gizonezkoen kirolean emakumezkoenean baino, ez direnean aitatasun baimenak berdintzen amatasun baimenekin, eta abar. "Ni diskriminazio positiboaren aldekoa naiz; horrek ekarriko luke kontuan izatea emakumeen kopurua enpresetako, instituzioetako, Espainiako Errege Akademiako, eta abarretako zuzendaritza organoetan. Izan ere, 45 kideetatik soilik 7 emakume izatea da hor zerbait gertatzen ari den seinale: diskriminazio negatiboa du izena. Ez da naturala, gehiegizko gizon kopuru hori artifiziala da oso", ondorioztatu du Barquínek. "Albert Schweitzer Bakearen Nobel saridunak esan zuen moduan: 'Eredua ez da irakasteko modu onena, modu bakarra baizik'".

Hiru liburu ulerterraz hauek aliatu gisa erabil ditzakegu berdintasuna ikasteko eta irakasteko lehen fase horretan, alegia, berdintasun ezaren kontzientzia hartzean.

"Feminismo para principiantes", Nuria Varela Ediciones B argitaletxea, poltsiko-liburua

Ibilbide liluragarri bat feminismoaren historian barrena.

«Feminismoa esku-argi bat da. Haren argia da intolerantziak, aurreiritziek eta gehiegikeriek ilundutako gelak argitzen dituen justizia».

"Forjar un hombre, moldear una mujer", Marina Subirats. Aresta-Dones argitaletxea

Marina Subiratssek generoa transmititzen jarraitzen duten tresna kulturak ezagutzeko proposamena egiten du: gu kontziente izan gabe funtzionatzen dutenak, ados ez bagaude ere. Gure kulturako sedukzioek jolasaren eta dibertsioaren mozerropetik irakasten dizkigute antzinako mandatuak.

"Muñecas vivientes: El regreso del sexismo", Natasha Walter. Noema argitaletxea.

Natasha Walterrek zalantzan jartzen ditu bi diskurtsoren baliozotasuna: aukera askatasunarena eta biologiarrena. Bi diskurtso horiek sexismo berri baterantz eta determinismo berri baterantz bideratu dira, eta jarrera femenino eta maskulinoei buruzko estereotipoak indartzen laguntzen dute.

Getxoko

Emakume Elkarteak

BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista
bfalgorta@gmail.com

ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Berdintasunaren aldeko Plataforma Zibikoa
Martikoena 16
enclavegetxo@gmail.com

ESKUZ-ESKU

Prestakuntza eta Garapenerako
Emakumeen Elkartea
Martikoena kalea 16, 1. solairua. 48992 Getxo
Tel.: 94 430 08 35
eskuz-esku@hotmail.com

GIZATIAK

Romo eta Areetako Emakumeen
Gizarte eta Kultur Elkartea
Gobelaurre parkea z. g. 48930 GETXO
Tel.: 944 635 012
gizatiar@hotmail.com

RODA

Kultur Elkartea
Areetako Etorb., 10 behe esk.
48930 Getxo
Tel.: 94 463 18 96
asociacion_rod@telefonica.net

EMAKUMEEN AHOTSA

Etorkin eta bertako emakumeen topaketak bultzatzen dituen elkartea da
asociacionmujeresconvoz@gmail.com

Jabekuntza eskola



Arrakasta handia izan du "Umorea, generoa eta emozioak" ikastaroak

Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak hogeikastaro eskaintzen ditu Getxoko emakumeentzat. *Umorea, generoa eta emozioak* izenekoak izen-emateen marka hautsi du. Horrenbesteko arrakasta izan du, Getxoko Udalak lekua aldatzea proposatu zuen parte-hartzaileen eskaria asetzeko.

Ikastaroan 50 emakume ari dira parte hartzen, eta Virginia Imaz Quijerak sortu zuen, Oihulari Klown antzerki konpainiaren sortzaileak. Barre-terapia modan jarri zenean, Imaz konturatu zen ez zela lantzen genero-ikuspegitik. Umorea erreferentziala da, eta, ondorioz, aurreiritzi ugari ditu. Horietako bat da

sexu-generoarena. "Emakumeok ohituta gaude barre sozialera, edukazioz barre egitera, sarritan maite ditugun pertsonen txisteez barre egitera, pertsona horiei nolabaiteko babesa emateko (normalean, gizonak izaten dira). Batzuetan behartuta sentitzen dugu geure burua graziaz egiten ez digun zerbaiti barre egitera", nabarmendu du Imazek.

Tailerra 30 ordukoa da, eta bertan Imazek parte-hartzaileei proposatzen die halako barrearen gimnasia bat egin dezatela. Hori modu askotan landu daiteke: jendaurrean aharrasi egiteko baimenetik hasita egunean zerbaitegatik bost bider harridura senti-

tzeraino. "Tailerrean aldaketa txikiak planteatzen ditut, askotan, ohitura txar txikiak errepikatzea baita gaixotzen gaituena", zehaztu du Imazek.

Apirilaren 18ra arte parte-hartzaileek berreziketa emozionala landuko dute, umore kutsuarekin, Fadura Kiroldegiko Aretoko Nagusian. "Barre egitea askatasun- eta ahalduzko-eraketa bat da. Barre egiten du badakienak, nahi duenak eta ahal duenak. Helburua ez da emakume bati esatea barre egin dezala edo egin ez dezala, baizik eta hark nabaritzea domestikaziorik ba ote dagoen, gure grinak traizionatzen ari ote garen, eta abar", amaitu du Imazek.

Elkarrizketa

ANA GALARRAGA AIESTARAN, ZIENTZIA-DIBULGATZAILEA

“Botikek % 1,5 arazo gehiago sortzen dute emakumeengan gizonengan baino, dosiak ez direlako haiekin probatu”

Ana Galarraga Aiestaran lizentziatua da Albaitaritzan eta Elikagaien Zientzia eta Teknologian. Bere lan-karreraren hasieran ikerketan aritu zen arren, 17 urtetik gora daramatza Elhuyar dibulgazio zientifikoko aldizkarian erredaktore lanetan. Alor horretako

Zein punturaino eragiten die generoko alborapenak ikerketa zientifikoei?

Ikerkuntzaren ikuspegitik emakumeenganako protekzionismoa dago, eta horren eraginez emakumeek eta beste zenbait kolektibok ez dugu parte hartu izan ikerketa klinikoetan. Ondorioz, ikerketetan araua eta estandarra sexu maskulinoa da. Honako profil hau da nagusi: gizon zuria, 25 eta 40 urte artekoa, nolabaiteko egonkortasun sozial eta ekonomikoa duena. Abiapuntu horretatik ezartzen dira osasun- eta gaixotasun-parametroak eta tratamenduak. Nahiz eta sektore horrentzat bakarrik diren baliozkoak, populazio osora hedatzen dira. Ondorio ugari ditu horrek.

Adibidez?

Botikak merkatutik kentzea, emakumeengan dituzten albo-efektuak direla eta. Orokorrean, botikek % 1,5 arazo

gehiago sortzen dute emakumeengan gizonengan baino, dosiak ez direlako haiengan probatu. Beste ondorio garrantzitsu bat da haurdun dauden emakumeek haurdunaldian ez daukatala botikarik, ez delako ikerketarik egiten haiekin.

Zure ustez, zergatik ez dira emakumeak kontuan hartzen ikerketa zientifikoetan?

Protokoloak aldatzen hasiak dira, eta animalia arrez gain emeak ere erabiltzen ari dira laborategiko entseguetan. Orain arte, ordea, honako hau gertatzen zen: arratoi emeek hormona-ziklo bat dute, eta emaitzetan aldakortasuna zegoen, gurekin gertatzen den bezala; bide erraza eta azkarra hautatzen zen, alegia, eraginak animalia arretan ikeretzea, egonkorragoak direlako. Alborapen horrek ondorio oso larriak ditu, baina hasiak dira laborategi askotan

aditu handiak elkarrizketatzeko aukera izan du: Elena Aldasoro, Carme Valls eta Elena Rico, besteak beste. Haren orrialdeetan sarri jorratu du emakumeek ikerkuntza zientifikoan jasaten duten bazterkeria.

animalia ar adina emerekin ikertzeko eskatzen.

Gaur egun oraindik tratatzen al dira gaixotasunak emakumeengan gizonekin neurtutako parametroekin?

Bai, baina azken urteetan aurrera egin dugu. Genero maskulinoari lotzen zaizkion gaixotasunekin, esaterako, miokardio-infartuarekin, gizonentzat ezarrita zeuden ohiko sintomen zerrenda, diagnostikoa eta tratamendua. Gaitz horiek ikertu zituzten Elena Aldasorok eta haren taldeak 2004an. 2004an ikusi zen emakumeek beste sintoma batzuk ditugula, eta ez datozela bat tipikoekin. Diagnostikoa berandu egiten da emakumeengan, eta gaizki, beste gaitz batzuekin nahasten delako. Tratamendua ere ez da egokia, gizonen fisionomiari egokituta dagoelako.

Badago emakumeekin egin den zerbait: hilerokoa eta menopausia bezalako prozesu naturalak medikalizatu dira. Uste duzu merkatu-estrategien ondorioa dela?

Oso ondo azalduta dago hori *Mentiras científicas sobre las mujeres* liburuan. Emakumeen fisionomiari buruzko ezagutza gure eskuetan zegoen, eta akademiako adituek fiskalizatuta egotera igaro zen. Ezagutza hori guztia kendu digute, eta ez zaigu aitortzen geure gorputzaren inguruan erabakiak hartzeko gaitasuna. Horri merkatuan balioa aurki badiezaiokezu, eta horrekin dirua irabaz badezakezu, hainbat hobeto.

Zure ustez, zergatik dagokio emakumeari oraindik ere antisorgailu hormonalak hartzearen ardura?

Duela gutxi egindako ikerketa bat, antisorgailuak gizonen txertatzearen eraginkortasuna ikertzen zuena, bertan behera utzi zen, ikerketan parte hartu zuten gizonen jakinarazi zutelako akne gehiago zutela, umore-aldaketak zituztela, eta libidoa areagotu zitzaie-la. Albo-efektu horiek ez dirudite oso larriak emakumeentzako pilula antisorgailuek sortutakoekin alderatuz gero. Hala ere, bertan behera utzi zen ikerketa. Gai sozial batez ari gara. Gizonen ez dute erantzukizuna hartzen, eta hor jokoan sartzen da eskariaren eta eskaintzaren legea. Ez dute gizonentzako antisorgailu hormonalak eskaintzen garbi dutelako ez dela eskaririk egongo.

Uste duzu zentzua duela neskei modu masiboan Giza Papilomaren Birusaren aurkako txertoa emateak, edo uste duzu industria farmazeutikoaren mugimendu komertzial bat dela?

Txertoen gaiarekin batzuetan beharrik gabeko alarma sortzen da. Industria farmazeutikoak botere handia du. Gu mugitzen gaituen faktore nagusia beldurra da. Dena dela, GPBa sexu-transmisioko birus bat da, eta garrantzitsua izango litzateke heziketa eraginkor eta sakona ematea. Izan ere, transmisioa saihestu daiteke txertoa eman beharrik gabe, eta kasu batzuetan ikusi dugu kaltegarria izan daitekeela: txertoak segurtasun-sentsazio faltsua sortzen du, eta neskek uste dute sexu-transmisioko beste birus batzuetatik ere babestuta daudela, txerto horrek barnean hartzen ez dituen arren. Badi-rudi sexuari buruzko erantzukizuna izateko zama gure gain dagoela soilik. Kontu historikoa eta egiturazkoa da, antisorgailu hormonalena bezalakoa.



ARGAZKIA: DANIEL SOLABARRIETA